

# **“IKASTETXEKLIK” LANKIDETZA HITZARMENA**

## **Data**

### **BILDU DIRA:**

Batetik, Maider Morras Azpiazu, 15398277F NAN duna, Arrasateko Udaleko Alkatea.

Bestetik, Iratxe Salaverria Gorostiza 15382913F NAN duna Arrasateko Herri Eskolako Zuzendaria.

### **PARTE HARTZEN DUTE:**

Lehenengoak Arrasateko Udalaren izenean, Tokiko Araubidearen oinarriari buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legean emandako eskumenez baliaturik.

Bigarrenak Arrasateko Herri Eskolako HLHI Ikastetxearen izenean eta ordezkarietan, Arrasateko Herri Eskolako Zuzendari moduan izendatua Donostian, 2023ko uztailaren 12an.

Bi aldeek elkarri nahiko gaitasuna aitortzen diote hitzarmen hau sinatzeko, eta horretarako

### **AZALTZEN DUTE:**

I.- 2020ko ekainaren 18an egindako bilkuran, Udalbatzarrak “D2030 Garapen jasangarriko sarea” izeneko ekimena sustatzeko konpromisoa hartu zuen.

Ekimenaren erronka nagusia da Debagoiena eskualdearen trantsizio jasangarria egitea, erakunde publikoen, eragile ekonomikoen, ezagutzaren eragileen eta gizarte eragileen arteko lankidetzaren mekanismoen bidez, eskualdearen egungo egoeraren diagnostiko bat eginez eta agenda partekatu bat definituz, etorkizunean planteatzen diren erronka askotariko eta konplexuei irtenbidea emateko. Ildo horretan, proiektu bateratuaren ikuspegiaren abiapuntua da ingurunearen garapen komunitarioan sakontzea, 2050erako eskualde adimendun, inklusibo eta klimatikoki neutroa lortzeko, eta neutraltasun hori eman dadin, 2020ko irailean Energia Trantsizioa bultzatzeko prozesu bat abiatu zen. Prozesuaren helburua da, eskualdeko eragileen artean energiak planteatzen duen erronka aztertzea eta lankidetzan oinarritutako hainbat ekintza diseinatzea eta garatzea, eta hauen artean dago “Ikastetxeleklik”.

II.- Ikastetxeleklik-50/50 proiektuak helburu du ikastetxeetan energiaren eta uraren aurrezkia eta eraginkortasuna sustatzea hezkuntza komunitate osoarekiko lankidetzaren bidez eta parte hartze aktiboan oinarrituta. Balio pedagogiko handiko tresna da, pertsonen parte hartzean eta ahalduztzean oinarritua. Egokia da kultura berri baten balioak barneratzeko, energia eta ur kontsumoak optimizatzeko, aurrezki ekonomiko handiak lortzeko eta ingurumen inpaktuak nabarmen murrizteko. Eskolan energiaren aurrezkia eta eraginkortasuna sustatzeko proiektua da, hezkuntza komunitatea osoarekin lankidetzan eta parte hartze aktiboan oinarrituta.

III. - Arrasateko Udalak egokitzen jo zuen proiektu honetara atxikitzea 2022-2023 ikasturtean eta hala jasoa geratu zen Udalbatzak 2023ko martxoaren 7an onartutako dirulaguntzen plan estrategikoaren zortzigarren aldaketan adostu zenean dirulaguntza nominal bat ematea Arrasate Herri Eskola HLHIri.

IV.- Aurreko ikasturteko emaitzak ikusita, onuragarria izan zela bai udalarentzat baita ikasleentzat ere, Arrasateko Udalak aurreikusten du Ikastetxeleklik - 50/50 proiektua beste ikasturte batez garatzea Arrasate Herri Eskolan.

V.- Proiektuaren helburuak jarraitzen du izaten eraikin horretako energiaren eta uraren kontsumoa murriztea eta lortzen den aurrezpen energetikoak sortutako aurrezpen ekonomikoaren, aurrezpen neto globalaren, %50 Erguin Herri eskolako eraikinaren ordezkariari ematea izendun diru laguntza bezala; gainerako %50a udalak berrinbertituko du eskolan bertan energia eraginkortasun neurrietan.

V.- Hirigintza Batzordeburuaren proposamenez eta N24/00641 Alkatearen ebazpenez erabaki da zuzeneko diru-laguntza nominatiboa ematea Arrasate Herri Eskola HHLHI Ikastetxeari gehienez ere 3.200€koa

VI.- Era beran alkateak ebatzi du hitzarmen hau sinatzea 2024ko apirilaren 10ean(Alkatearen Ebazpena N24/00641).

Azaldutakoaren arabera Arrasateko Udalak eta Arrasate Herri Eskolak, erabaki dute hitzarmen hau sinatzea. Hitzarmena ondorengo klausulei jarraiki arautuko da, bertan jasotzen baitira aldean konpromisoak diru-laguntza ematea burutu dadin.

## **KLAUSULAK:**

### **Lehengoa: Hitzarmenaren xedea**

Hitzarmen honen xedea da Ikastetxetik 50/50 proiektuaren barruan dagoen Arrasate Herri Eskola HLHI Ikastetxean, energia aurrezpena sustatzeko diru-laguntzaren kontzesiorako baldintzak zehaztea, non Arrasateko Udala den gastu energetikoei aurre egiteko erantzulea.

### **Bigarrena: Aurrekontua eta finantzazioa**

Arrasateko Udalak ordainduko du diru-laguntzaren zenbatekoa, 2024 urteko aurrekontuetako 1 0518.481.170.00.01 partidatik, Ikastetxe klik-Gizabidea-Erguin Eskola partidatik, 8.450euroko hasierako kredituarekin, zeinetatik gehienez ere 3.200€ egokituko zaizkion Arrasate Herri Eskolari.

### **Hirugarrena: Hitzarmenaren iraupena**

Hitzarmenaren lotuta egongo da proiektuaren exekuzio epearekin eta bukatuko da 2024ko abenduaren 31ean. 2024ko azaroaren 30a baino lehen aurkeztu beharko da energia aurrezpenaren datuak jasotzen duen memoria teknikoa. Era berean, 2024ko abenduaren 31a baino lehen aurkeztu beharko dira diru laguntza erabili izanaren ebidentziak. Hortaz, hitzarmen iraupena 2024ko abenduaren 31 arte dela ulertzen da.

### **Laugarrena: Arrasateko Udalaren konpromisoak**

Hitzarmen honi jarraiki Arrasateko Udalak harturiko konpromisoak honakoak dira:

- a) Arrasate Herri Eskola HLHI Ikastetxeari, Aurrezpen Neto Globalaren %50 diru-laguntza eran ordaintzea, 3.200 euroko mugarekin.
- b ) Udal Zerbitzuetako datuak ematea, kontsumo energetiko eta ur kontsumoaren aurrezpena kuantifikatzen duena, aurrezpen neto globala eta eskolari dagokion diru-laguntzaren zenbatekoa zehazteko.
- c) Jarraipena egitea aurrezpen neto globalaren %50 hori energia batzordeak aukeratutako proiektuetara bideratu dela. Ikuskapen hori egin ahalko da eskolara bertaratuz edota eskolari ebidentziak eskatuz.

### **Bosgarrena: Arrasate Herri Eskola HLHI Ikastetxeak harturiko konpromisoak**

- a) Aurrezpen neto globala zehazten eta justifikatzen duen exekuzio memoria (tekniko eta ekonomikoa) udalari aurkezteko 2024ko azaroaren 30a baino lehen, bertan kuantitatiboki zehaztuz egon diren aurrezpen energetiko eta ekonomikoak. Exekuzio memoriak horrek jasoko ditu:
  - i. 2023-2024 ikasturtean egindako aurrezpen neto globalaren definizioa, kalkulua eta zenbatekoa.
  - ii. Diru laguntza zertan erabiltzeko asmoa jasotzen duen proposamena.

- iii. Zuzendariaren adierazpen erantzulea adieraziz diru laguntza erabiliko dela hartutako konpromisuen helburuetarako.
- iv. Zerga obligazioetan eta Gizarte Segurantzako ordainketetan egunean egotearen ziurtagiri eguneratua.
- v. Diru laguntza jasoko den kontu korrontearen zenbakia eta titulartasuna.
- vi. Diru laguntza jasko duen erakundearen NIF eta ordezkaritza ahalbideratzen duen dokumentua.
- vii. Adierazpen erantzulea dokumentu guztiak egiazkoak direla.
- b) Jardueran eta erabilitako hedabide guztietan (irriti, prentsa, kartel, eskuko programa, etab.) jasota uztea proiektua finantzatzeko Arrasateko Udalaren lankidetzat.
- c) Behin diru-laguntza jasota, urte bateko epean, laguntzaren objektu izan diren ekintzak laburtzen dituen memoria tekniko eta ekonomikoa aurkeztu beharko zaio udalari. Mugaeguna iritsi baino lehen eskatu ahal izango zaio udalari dokumentu hori(ek) aurkezteko epearen luzapena. Dokumentu horrek jasoko ditu, gutxienez:
  - i) Burututako ekintzen laburpena: zerrenda, argazkiak,...
  - ii) Fakturak eta ordainagiriak.

### **Seigarrena: Ordainketa era**

Dirulaguntza ordaintzeko era izango da proiektuaren exekuzio memoria aurkeztu eta udal zerbitzuek memoria hori ontzat emandakoan.

### **Zazpigarrena: Bateragarritasuna beste diru-laguntza publikoekin. (Bateraezintasuna)**

Hitzarmen honek arautzen duen diru-laguntza bateragarria izango da helburu bera duten bestelako diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin, bestelako administrazioetatik edo erakunde publikoetatik edo pribatuetatik datozenak.

Dena den, diru-laguntza hau bateraezina da helburu berarentzat Arrasateko Udaletik datozen bestelako diru-laguntzak edo laguntzak hartzearekin.

Hala eta guztiz ere, emandako laguntzen zenbatekoa, bakarrean edo batera, inola ere ezingo da izan diru-laguntzaren xedearen balioa baino handiagoa.

### **Zortzigarrena: Hitzarmenaren baldintzak aldatzea**

Diru-laguntzaren entitate onuradunak Udalean eskatu ahal izango du, diruz lagunduriko jarduera burutzeko epea amaitu aurretik, hitzarmena hau aldatzea ezarritako epeak zabalitzeko, emaniko zenbatekoa gutxitzeko edo jarduera osatzen duten ekintzak aldatzeko. Aldaketa horiek baimenduko dira zergatia ustekabeko egoeretan gertatzen direnean edo jarduera behar bezala burutzeko beharrezkoak direnean, betiere diru-laguntzaren xedea edo helburua aldatzen ez bada edo hirugarrenen eskubideak kaltetzen ez badira.

Udalak hitzarmen hau aldatu ahal izango du, onuradunari jakinaraziz eta diru-kopuruak aplikatu aurretik, hitzarmen hau onartzeko kontuan harturiko baldintzen aldaketak eragozten edo galarazten duenean lortu nahi den interes publikoaren lorpen-maila, eta onuradunari kalterik eragiten ez bazaio.

### **Bederatzigarrena: Aurrezpenak**

a) Aurrezpen netoa:

1. Produktu bakoitzaren kontsumoaren igoera edo jaitsiera kalkulatzeko, exekuzio epeko kontsumo erreala eta erreferentziazko kontsumoaren arteko diferentziarekin kalkulatu da, eta behar izanez gero, unitate estandar batera bihurtuta.

2. Produktu bakoitzaren erreferentziazko kontsumoa, epe berdineko kontsumo errealean historikoekin kalkulatuko dira, gutxienez urte bat eta gehienez hiru, eta beste faktore zuzentzaile batzuk.

3. Desberdintasun positiboa (kontsumo gutxiago) edo negatiboa (kontsumo gehiago) hornitzaileak produktuen prezio unitarioen batezbestekoarekin biderkatuko da, aurrezpen neto positibo edo negatiboa lortuz.

b) Aurrezpen neto globala:

Aurrezpen neto globala, proiektuan sartutako produktu bakoitzaren aurrezpen netoen batura da. Aurrezpen global hau, positiboa edo negatiboa izan daiteke, azken kasu honetan, ikastetxeak ez dio inolako ordainketarik egin beharko udalari.

### **Hamargarrena: datu pertsonalak babestea**

Datu pertsonalak tratatuko balira, bi aldeek adosten dute eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 lege Organikoak ezarritakoa betetzea.

### **Hamaikagarrena: Lan arriskuen prebentzioa**

Diru-laguntzaren entitate onuradunak, proiektuaren edo diruz lagunduriko jardueretan, indarrean dagoen araudia beteko du lan arriskuak prebenitzeko alorrean, azaroaren 8ko 31/1995 Legea, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzkoa, eta berau garatzeko araudia.

### **Hamabigarrena: Araubide Juridikoa**

Hitzarmen honek administrazio izaera du, eta horregatik interpretazioa eta garapena arautuko dira ordenamendu juridiko administratiboak ezarritakoaren arabera.

Hitzarmen honetan jarri gabe geratu diren alderdi guztietan administrazio alorrean indarrean dagoen legeria ezarriko da eta, batik bat, Arrasateko udalean diru-laguntzak ematea arautzeko udal ordenantza, azaroaren 17ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritakoa uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan, non bertan onartzen den azaroaren 26ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrearen Arautegia, urriaren 1eko 39/2015 Legea, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa eta urriaren 1eko 40/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa. Subsidiarioki, zuzenbide pribatuko arauak aplikatuko dira.

### **Hamahirugarrenak: Eskumeneko Jurisdikzioa**

Aldeen artean sor daitezkeen auziak ebazteko eskumena izango dute Administrazioarekiko Auzien Donostiako Epaitegiek, eta, era horretan bi aldeek onartzen dute epaitegi horien lurralde-eskumena

Aurreko guztiarekiko adostasuna erakusteko, parte hartzen duten aldeek hitzarmen hau sinatzen dute, bi aletan eta eragin bakarrerako, idazpuruan adierazten den idazpuruan.

ERGUIN HERRI ESKOLA

ARRASATEKO UDALA